



Pil-pilean

TRUKERAK

Soraluzeko hilabetekaria
2023ko uztailea · 400 alea



GALTZAGORRIXAK 20 URTE



PIL-PILEAN 400

2023ko uztaila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|---|--|
| 3 | Jai Batzordea | IRITZIA |
| 4 | Begira 90eko jai haiek | 16 Gutunak Iban Arantzabal <i>Xabier Labaien gogoan</i> |
| 6 | Kanoikada; erasoen kontrako kanpaina | 16 Komiki tira |
| 7 | Danborrada egosten | 17 Hausnarketa Zertan aldatu dira jaiak? |
| 8 | Munduko Arrozak eta Gazta Dastatzea | 17 Puntua Alberto Iñurrieta <i>Osasuna zer den edo zertan den</i> |
| 9 | Umeendako eskaintza | |
| 10 | Joanes Echeveste Goazen karaokea | |
| 11 | Ezoziko Gaiztuak eta elkartasuna | |
| 12 | Goi mailako pilota partidak | |
| 13 | Futbito eta pilota finalak | |
| 14 | Argazki bidez San Andresko jaiak | |
| 18 | Erreportajea Galtzagorriak | |
| 23 | PainApple taldea | |
| 24 | Muzak eta DJ bikoteak | |
| 25 | Txaberria proiektua | |
| 26 | Zuzeneko elektronikoak | |
| 27 | Oihan Vega | |
| 28 | Gozategi | |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Parte hartzeko eta gozatzeko deia



Ohikoa baino jai luzeagoak izango dira aurtengoak, uztailaren 21ean hasiko dira eta guztira, sei egun iraungo dituzte. Joan zen astean, Udalak batu zituen jaietan parte hartuko duten taldeetako ordezkari eta norbanakoak: Asier eta Iñakiten Omenezko Pilota Txapelketa, Soraluzeko Pilota Elkartea, Galtzagorrixak Jai Batzordea eta txaranga, Gune Musik, bertsozaleak, Auzoko, Plaentxia kantuan, elkarte gastronomikoak, Euskal Presoen Aldeko Taldea, txistulariak, gaiteroak, DJak, ikasbidaikoak, artisauak, buruhandiak, kanoilariak, txapligu jaurtitzaila, Udala... Horien guztien eta beste hainbaten laguntzarekin osatu da Santiago-Santa Ana jaietako egitaraua, denetariko ekitaldiarekin: kirol saio, jatordu, musika ekitaldi, dantza hitzordu, zezen...

Galtzagorrixak pregoilari

Udalak jakinarazi du pregoia Galtzagorriek botako dutela, hogei urtez "herriko kaleak musika eta dantzaz alaituz eta Soraluzeri gune herrikoï eta partehartzaileak eskainiz" egin duten lana aitortzeko. Horrekin batera, dei egin diete herritarrei, jaietan elkarrekiko errespetuz parte hartu eta gozatu dezaten.

90eko jai haiek...

ARGAZKIA: KONTRARGI

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

1990ean Luis Felipe Galarraga zen alkate eta bost eguneko jaiak antolatu ziren. Lehen egunean (Santiago Eguna): txupina, Oria txaranga eta dantzaldia Berakatz Band taldearekin (oraingoz, taldearen izenez aparte, ezer deigarririk ez). Bigarren eguna (Santa Ana) kargatua zetorren: bakailaua, dantza suelto txapelketa, II. Balsa jeitsiera, zezena, gauean Egan, eta errematazkeko, 05:00etan, zezena (hasi gara...). 08:00etan (oraindik tente zeudenentzako) "herri jolasak": "sokatira eta pañuelitos". Ostean, goizero moduan, Zabale Anaiak trikitilariak kalez kale. Eguerdian, Arrasateko konpartsa eta kilikiak, eta arratsaldean (heldu ondo barandillari!): "Puenting, Erlaegiko zubian". Gauean, Minxoriak (ekaitzaren aurreko barealdia...). Laugarren eguna, zapatua. Goizean, Larreategi Taldea gehitu zaio Zabale Anaien triki errondari. Ondoren dator Santa Ana pilota txapelketa, koadrilen arteko paella lehiaketa eta koadrilen bazkaria "txistelari" eta guzti. Arratsaldean, "herri jolasak koadrilentzat": "zaku lasterketa", "errelebu lasterketa" eta "bizikleta lasterketa (lehen saria azken tokian sailkatutakoarentzat)". Iluntzean (entzun ondo), "III. Batel Txapelketa" eta gauean, azken traka, Rock jaialdia Plaza Zaharrea: La Polla Records, Su Ta Gar eta BAP (harrapazank). 06:00etan (tsunamiaren ostean) merengada (mitikoa) eta salda. Eta segi. 08:00etan (kaleak gaupaseroz beteta) entzierroa, ostean trikitilari tropela (hemen ez da ezer pasa...) eta eguerdian Iparraldeko herri-kirol jaialdia, Lazkano eta Mañukorta bertsolariek girotuta. Arratsaldean, pailazoak eta zezena, eta gauean, Lisker (dagoeneko bazebiltzan...). Zer esan... Tarteka, merezi du atzera begiratu eta aurretik egin dena gogoratzea, ez duzue uste? (Egitarauak daude ikusgai Sorapedian)







lazko kanoikada jaurti ondoren.

Kanoikada astelehenean

Jai parekideak, feministak eta askeak izateko mezuz beteko da herria; jaietako zapia, berriz, Iratxon, Zubiko txosnan eta Plaza Zaharreko txosnan eskuratu ahal izango da, *Soraluzeko jaixetan aske gozatu* mezuarekin

Aurten, ezohiko datak tokatu dira jaietarako eta horrek eraginda, ekitaldiak uztailearen 21etik, barikutik izango diren arren, jaien hasiera markatzen duen kanoikada astelehenean, uztailearen 24an jaurtiko dute, SAPAn egindako tradiziozko kanoiarekin.

Kanoikada

20 urte bete dituztela-eta, Galtzagorriek esango dute pregoia. Haren ondoren, 19:00etan izango da kanoikada. Frantziska Iraolagoitiak eta Sergio Mari Zabalak piztuko dute suziriaren metxa, mikelete jantzita, Gipuzkoako Diputazioaren ardurapeko 1839tik aurrerako poliziaren

jantziarekin, alegia. Hortik aurrera, segida izango dute jaiak.

Egitaraua ekitaldi klasikoak eta berritasunez dago osatuta, aldizkari honetan daude xehatuta horietako hainbat. Ekitaldiok lau jai-gunetan banatuko dira: Plaza Zaharrean eta Barrixan, Zubi Nagusian, frontoian eta kiroldegiko terrazan.

Parekide, feminista eta aske

Osterantzean, esan, aurten ere berdintasuna eta askatasuna bermatzeko banderolaz beteta izango direla farolak, paretak eta bazterrak. "Nolako jaiak nahi ditugun adieraztearekin batera, Soraluzen eraso

matxistarik inondik inora ez dugula onartzen indartu nahi da kalean eta jai gune guztietan", esplikatu du Maite Quintanilla zinegotziak.

Erasoei aurre egiteko protokoloa

Zentzu horretan, eraso matxisten nahiz bestelakoan aurrean jarduteko Udalak protokoloa zehaztu du: "Iazkotik hona berrikuntza batzuk txertatu ditugularik; batez ere, eraso jasaten duen pertsona gehiago babeste aldera. Horrez gain, eraso larri bat gertatzen bada, Udal mailan ere jarraitu beharreko pausoak zeintzuk diren zehaztu ditugu". "Protokoloaren lanketa tabernari guztiekin eskuz esku egin da eta baita jai batzorde ezberdinekin. Honela bertan jarduten duten kide guztiek jakingo dute jarraitu beharreko pausua zeintzuk diren", gaineratu du Quintanillak.

Bestalde, SexuBizi Gune Morea ere jarriko da, uztailearen 22an, 23:00etatik 02:00etara Zubi Nagusian. Bertan, indarkeria matxistari aurre egiteko bitartekoak eskuratu ahal izango dira, baita sexualitateari buruzko informazioa eta materiala ere. Bukatzeko, Udaletik honakoa azpimarratu dute: "Soraluzen ez dugu eraso matxista, arrazista eta LGTBI+fobikorik onartzen. Eta denon ardura da, hori horrela izan dadin, erantzukizunez jokatzeari".

ERASO MATXISTEN ZEIN BESTELAKOEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA ZEHAZTU DU UDALAK



Ane Osoro, Ines Lascurain eta Lierni Elizburu.

Danborrada egosten

Ane Osorok, Ines Lascurainek eta Lierni Elizburuk datorren urterako Nagusien Danborrada berreskuratzeko lanari ekin diote; Danborradaren Batzordeko kide ohiek lagunduko diete

Azken bost urteotan moduan, aurtengo jaietan ere ez da egongo danborradarik, ez nagusienik ezta umeenik ere.

2018an irten zen Nagusien Danborrada azkeneko aldiz. Urte luzeko lanaren ondoren, Danborrada Batzordeko hainbat kidek erreleboa behar zutela-eta, 2018an, laguntasun deia egin zuen batzordeak, hurrengo urteetara begira, boluntario berriak lortzeko. Baina ez zuten erreleborik lortu eta bertan behera geratu zen danborrada. Umeen Danborrada, berriz, 2015ean desagertu zen, kasu horretan ere, antolaketarako boluntario faltarengatik.

Orain, ordea, hiru lagun Nagusien Danborrada antolatzeko ahaleginean hasi dira eta lehenagoko Danborrada Batzordeko kideetako batzuk laguntzeko prest daude.

"Betiko galtzea pena"

Ines Lascurain, Lierni Elizburu eta Ane Osoro dabilta Nagusien Danborrada berreskuratu nahian. Behin, kalean, danborradari buruz komentatzen, jakin izan zuten bata zein bestea prest zeudela ahalegin hori egiteko. "Bestetan parte hartu izan dugu danborradan, eta, betiko galtzea pena izango litzatekeela-eta, horrela hasi

ginen", kontatu dute. "Momentuz", Nagusien Danborrada antolatzen ahaleginduko dira hiru lagunak. Diotenez, hori berori "nahikoa lan" da.

"Gogotsu eta itxaropentsu"

Helburu horrekin, maiatzaren amaieran egin zuten lehen bilera Danborrada Batzordeko lehenagoko kideekin, eta, irailean segiko diote lanari. "Poliki-poliki" joango dira. Bestek beste, aurreratutako sare sozialetan sartzeko asmoa dutela, batik bat gazteak erakartzeko. "Lehenagoko antolatzaileek komentatu digute zer egin behar den, lanen banaketa, kontaktuak... eta batzordea osatzen zuten 15 lagunetatik bospasei prest daude gurekin batera danborrada antolatzeko. Gainera, 2024a urte berezia izan daiteke, jaien lehen egunean tokatuko litzateke-eta danborrada. Gogotsu eta itxaropentsu gaude, baina garrantzitsuena da jendeak parte hartzea; orain antolakuntzan laguntzeko behar da baina aurrerago, lan puntualak egiteko ere beharko da", esan dute. "Danborrada ikustea jende askori gustatzen zaio, baina ez badute parte hartzen ezingo da ezer ikusi", gaineratu dute. Ildo horretan, antolaketan lagundu nahi duena Ane Osororekin jar daiteke harremanetan.

"ORAIN ANTOLAKETAN LAGUNTZEKO BEHAR DA JENDEA, GERO LAN PUNTUALAK EGITEKO ERE BEHARKO DA"



Iazko Munduko Arrozak ekimenean parte hartu zuten sukaldariak.

Munduko Arrozak zubian

Jaietako eskaintza gastronomikoaren baitan, Santiago egunez kulturarteko topaketa gastronomikoa egingo da: Munduko Arrozak; uztailaren 23an, berriz, eskualdeko gaztak dastatzeko aukera izango da

Jaietan, bertakoez eta bertakoak ez diren jakiez gozatzeko aukera izango da.

Besteak beste, Soraluzeko aniztasun kulturalaren erakusleho izango da uztailaren 25ean, Zubi Nagusian egingo den Munduko Arrozak topaketa. Aurten, gainera, berritasunekin dator.

Capoeira erakustaldia

Batetik, plazan barik, Zubi Nagusian izango da. Bestetik, umeendako txokoa izango du, Auzoko ekimenean parte hartzen duten hainbat gurasoren eskutik. Hirugarrenik, Capoeira erakustaldia izango da 13:00etan, Bilboko Mestre Balu taldearen eskutik.



Egotzako gaztako postua, iaz.

Venezuela, Brasil...

Parte-hartzaileei dagokienez, berriz, artikulu hau idaztean oraindik izen-ematea itxi barik zegoen, baina ordurako izena emanda zuten Marokoko, Venezuelako, Brasilgo eta Peruko bizilagunek. Sukaldariei 10:30ean banatuko dizkiete sutegiak eta 11:00etan hasiko dira kozinatzen. 13:30erako gertu izango dituzte bakoitzak bere herriko errezetarekin egindako arrozak eta orduantxe hasiko dira arrozak erosteko txartelak saltzen. Prezioa izango da txarteleko 2 euro -arrazio bat- eta norberak aukeratu ahal izango du zein arroz dastatu.

Gazta dastatzea

Bestalde, uztailaren 23an, domeka, Debabarreneko Gazten Dastaketa izango da Zubi Nagusian.

Hiru gaztandegik eta sagardotegi batek osatuko dute eskaintza. Gaztandegiak honakoak izango dira: Soraluzeko Egotza (ahuntz-gazta) Elgoibarko Mausitxa (ardi-gazta) eta Mallabiko Axeleku (behi-gazta). Sagardoa, berriz, Elgoibarko Lizagasar Sagartokixarena izango da. 12:00etatik 14:30ak arte izango dira zubian eta haien produktuak probatzeko txartelak 4 euroan salduko dituzte. Txartel batekin hiru pintxo eta sagardoa nahi beste hartu ahal izango da.

**ESKUALDEKO HIRU
GAZTANDEGI ETA
SAGARDOTEGI BAT
IZANGO DIRA ZUBIAN,
UZTAILAREN 23AN**



lazko haur krosean, umeak irteeratik abiatzen.



Puzgarriak plazan.

Umeek badute zer aukeratu

Aurten ere izango dira umeendako tradiziozko hitzorduak: krosa, apar festa, musika ikuskizunak, puzgarriak eta barrakak; umeen egunean, barraketako bidaia batek prezio erdia balioko du

Etxeko gazttxoenei zuzendutako hitzorduen artean, barrakak izango dira jaietarako etortzen lehenak. Uztailaren 20-21erako Erregetxean izango dira autotxoak, lapikoa, txiki-parkea, salto-saltoa, zezentxoak, tiro-pitxioia eta txurreria. Aurten, gainera, baimena dute abuztuaren 1era arte bertan gelditzeko.

Bidaia bakoizak 2 euro balioko du, euro bat, berriz, umeen egunean, uztailaren 23an.

Erregetxeko barrakez aparte, puzgarriak ere izango dituzte umeek jolaserako. Kasu horretan, uztailaren 25ean, martitzena ipiniko dituzte,

11:00etan, Plaza Zaharrea, eta, doan izango dira. Bestalde, uztailaren 25ean, baita ere, umeek horren gustuko duten apar festa izango da, frontoiko karpan, 13:00etan hasita.

Jolasekin bukatzeko, eguaztenean, Santa Ana egunean, 11:30ean hasita, Plaza Berrian umeendako egurrezko jolasak izango dira, Jokai euskal mitologian inspiratutako jolas sortaileen konpainiaren eskutik.

Haur krosa

Haur krosari dagokionez, berriz, uztailaren 23an, 11:00etan hasiko da. Parte hartu nahi duenak egunean bertan eman beharko du izena, plazan

bertan. Segidan, adinka banatuta, bost lasterketa izango dira. Gazttxoenei ibilbide motzena egingo dute, Plaza Zaharretik Plaza Berrira. Hortik aurrera, ibilbidea luzatzen joango da adinaren arabera. Bukaeran, parte-hartzaile guztiek eskuratuko dute domina, eta helmugaratzen diren lehenek baita garaikurra ere.

Bi musika ikuskizun


Azkenik, umei zuzendutako bi ikuskizun ere izango dira herriko jaietan. Batetik, martitzenean, Goazen Karaokea izango da -segidako orrian xehetasun guztiak- eta bestetik, eguaztenean, Porrusalda erromeria izango da, 18:00etan, frontoiko karpan. Porrusalda erromeriari dagokionez, umeen zuzeneko parte-hartza bultzatzen duen ikuskizuna da.

HAUR KROSEAN PARTE HARTZEKO IZEN-EMATEA EGUNEAN BERTAN EGIN BEHAR DA, DOAN DA

"Publikoak parte hartuko du karaoke osoan zehar"

JOANES ECHEVESTE GOZAIEN KARAOKEKO ARTISTA

Uztailaren 25ean, Goazen telesaileko aktoreak bertatik bertara ikusteko aukera izango da, Goazen Karaokean, 19:00etan, frontoiko karpan.



Joanes Echeveste.

Santiago egunean, Goazen telesaileko Joanes Etxeveste (Ibai) Malen Azpiroz (Iraia) eta Julen Castillo (Koldo) aktoreak frontoian izango dira, Goazen Karaokea taularatzen.

Dagoeneko ibili zarete hainbat plazatan Goazen Karaokearekin, zelako harrera izaten ari da?

Harrera oso-oso ona. Goazenek daukan magia hori da jendea etortzen dela ilusioarekin telebistako lagunak ikustera oholta gainean, eta, aukera duten umeek gurekin abestera. Batzuek publikotik egingo dute baina beste batzuek baita taula gainetik ere. Ilusioz ikusten dute saioa eta guk ere harrera ona sentitzen dugu berotasun horrekin.

Taula gainera igotzeko aukera izango dute soraluzetarrek?

Publikoak parte hartuko du karaoke osoan zehar. Saioa publikoari eskainia da baina publikoak du karaokea posible bihurtzen. Eszenatokian lehiaketa moduko bat ipiniko da martxan eta parte hartu beharko da irabazle bat

ateratzeko. Ume batzuek izango dute abesti batzuetan oholtzara igotzeko parada.

Telesaileko abesti ezagunenak abestu eta dantzatzeko dituzue karaokean; adibidez, zein ez da faltako Soraluzen?

Ez dira faltako *Bueltan da* edo *Lagunak*, *spoiler* handirik egin gabe.

Joanes-Ibaik zer da gustukoena duena Goazen Karaoiketik?

Jendearekin nagoela, ez nagoela pantailaren beste aldean, zuzenean gaudela eta hor dagoen interakzioa, hori da gehien gustatzen zaidana; dantza oso gustuko dut; jendearekin ongi pasatzea, elkarrizketa, harreman hori da interesgarriena.

Eta Goazenek esperimentziatik?

Niri Goazenek eman didana lagun taldea da, familia handia, harreman asko, eta, ikasketa profesionalaz eta pertsonalaz gain, euskaraz lan egiteko aukera aparta ere izan da. Baina, batez ere, bertan sortu den familia hori eta ingurukoak da eman didana.

6 urte zenituenetik eszenatoki gainean zabilta; zein proiektu dituzu eskuartean epe motz-ertainera?

Joanes pailazo ikuskizunak egiten ibiltzen da, Pontx pailazoaren izenean. Pontxekin, azaroari begira ikuskizun berria estreinatzeko asmoa dago, azaroaren 18an izango da, Saran. Pontx opailazoa abentura berriekin etorriko da, eta, beste sorpresa batzuekin.

Agurtu aurretik, zer esango zenieke Soraluzeko zaleei?

Gu oso pozik gaudela Soraluzera etortzeaz, beraz, espero dugu haiek ere gurekin izango direla hitzorduan, dantzatzeko eta kantatzeko prest. Ongi pasatuko dutela seguru.

"GOAZENEN MAGIA DA JENDEA ILUSIOAREKIN ETORTZEN DELA TELEBISTAKO LAGUNAK IKUSTERA"



Anton Akizu eta Urko Aizpuru Ezoziko plazan.

Mojito arratsaldea, azkena alaitzeko

Jaietako azken eguna pizte aldera, Mojito arratsaldea antolatu dute zubiko txosnagunean; Ezoziko Gaiztuek girotuko dute

Uztailaren 26an, eguaztena, 18:00etan hasita, Mojito Arratsaldea izango da txosnagunean, Galtzagorrien eskutik. Jaietako azkeneko egunean ere jai-giroa bizi-bizi egon dadin aukeratu dute

kubatar edari ezagun baina tabernetan ez horren ohikoari leku berezia egitea Zubi Nagusiko txosnan.

Eskaintza borobiltzeko, Ezoziko Gaiztuek pintxatuko dute musika.

Oi! eta Punk Oi!

Esan dutenez, bi musika estilotako kantak jarriko dituzte.

Batetik, Oi! eta Punk Oi! estilokoak, esate baterako, Camera Silens frantsesen, Sham 69 ingelesen, Hernani-Añorga inguruko Orreaga 778 taldearen edo Lazkaoko Brigada Criminal taldearen kantak.

Rock britpop estilokoak

Bestetik, jatorri ingeleseko musika edo estilo hartan oinarritutakoa ere jarriko dute, *rock britpop* estilokoa, hain justu. Adibidez, The Clash mitikoak, Oasis ezagun askoak, Madchester mugimenduko The Stone Roses, new wave estiloko The Jam edo Tatzers euskaldunak.

Ezoziko Gaiztuak

Ezoziko Gaiztuak bikotea Anton eta Urko Ezoziko auzotarrek osatzen dute; kontatu dutenez, jaietako azken arratsalderako, bi ordurako besteko musika saioa prestatu dute, denak martxan eta dantzan jartzeko gogoz.

Euskal presoen etxeratzea aldarrikatuko eta bultzatuko dute jaietan

Urteotan moduan, bereziki, Plaza Zaharreko txosnagunean hartuko du indarra euskal presoen aldeko aldarriak. Haren bitartez batuko dute herritarren ekarpena eta besteak beste, bertan egingo dute euskal presoen aldeko bazkari jendetsua Santa Ana egunean.

Antolatzaileek salatu dutenez, "urruntze politika gainditzeak ez

du esan nahi euskal presoek eskubideen urraketaren amaiera eman denik. Etxerako bidea oztopatzen duten salbuespen neurriak eta eskubide urraketek agintzen dute oraindik".

"Etxean nahi ditugu"

Hori horrela, herriko kale eta txoko guztietan bistaratuko dute presoek etxeratzea

eskatzen duen *Etxera* aldarrikapena. "Kalean, jaietan, txosnetan... ikusaraztea eta ozen aldarrikatzea garrantzitsua da; elkarbizitzan aurrera urratsak emateko, konponbidean jarri behar dugu euskal presoek, iheslarien eta deportatuen auzia. Etxean nahi ditugu. Herritarren ekarpena oraingoan ere, oso garrantzitsua da. Beraz, Plaza Zaharreko txosnara gonbidatuta zaudete. Etxera!".



Xala eta Pascual pilotariak Arrasaten. JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA, 'ATAURI'

Goi mailako pilota partidak

Uztailaren 21ean, barikua, pilota jaialdia izango da Arane kiroldegian; partida nagusia Atxotegi-Balerdi vs Xala-Pascual izango da

Aurten, jaietako egitaraua Soraluze Pilota Elkartek antolatutako pilota jaialdiak estreinatuko du. Uztailaren 21ean, barikuan, 19:00etan hasiko da ikuskizuna, Araneko frontoian. Jubenilek jokatuko

dute lehenengo eta ondoren partida nagusia izango da.

"Gogorra, ikusgarria"

Etxeok, Aitor Atxotegik eta Manex Balerdik ez dute batere norgehiagoka erraza izango,

aurrez aurre izango baitituzte Ives Salaberri *Xala* eta Iñigo Pascual punta-puntan ibilitako pilotariak.

Xalari dagokionez (Lapurdi, 1979), profesioaletan ibilbide luzea eta oparoa egin duen aurrelaria da. Besteak beste, buruz buruko txapeldun izan da eta txapeldunorde birritan; binakako txapelduna hirutan -bat Aritz Laskurainekin- eta txapeldunordea behin, eta, baita lau t'erdiko txapeldun ere.

Pascuali dagokionez (Abarzuza, 1976), berriz, profesioaletako ibilbidean, urte luzez, *Xalak* bikote izan duen atzelaria da. Pascualek 17 urte egin zituen maila handian eta batik bat binaka jokatuz nabarmendu zen, besteak beste, txapeldunorde izan zen. Aritz Laskurain soraluzetarrarekin batera agurtu zen kantxetatik, Soraluzen.

"Partida gogorra, ikusgarria izango da" esan du jaialdiko antolatzaile eta Soraluze Pilota Elkarteko arduradun Aitor Atxotegik. "Ea jendea animatzen den bertaratzerara era ea giroa sortzen den", gaineratu du etxeko pilotariak.

Gazteen eskuz binakakoa

Pilota jaialdia Jubenil mailako eskuz binakako partidarekin hasiko da. Soraluzeko Pilota Elkartean diharduten pilotariak Eibarko taldeko kide bat izango dute laukotea osatzeko lagun. Hala, Eki Amuategi soraluzetarrak eta Ibon Ibarra eibartarrak aurrez aurre izango dute Mikel Caramanzana debarra eta Haitzart Iraolagoitia mendaroarra.



Mikel Caramanzana, Ibon Ibarra, Aitor Atxotegi eta Manex Balerdi, aurten.



Pilota txapelketako finalerdiak San Andresko jaietan jokatu ziren.

Futbito eta pilota finalak

Zapatuan, uztailaren 22an, Asier eta Iñakiren txapelketako finalak jokatu da San Andresen. Astelehenean, uztailaren 24an, futbito txapelketakoak, Araneko frontoian

Jaietan, bi txapelketa herrikoien finalak jokatu dituzte.

Batetik, Asier eta Iñakiren omenezko pilota txapelketako finala jokatu dute zapatuan, uztailaren 22an, 11:00etan San Andres auzoko frontoian. Finala honako bikoteek jokatu dute: Iosu Unanue eta Beñat Catalanek Iokin Arrillaga eta Argoitz Ariznabarretaren kontra.

17 bikote

Aurten 17 bikotek parte hartu dute Asier eta Iñakiren omenezko XXII. pilota txapelketan. Maiatzean hasi zituzten partidak, guztiak ere San Andresko frontoian. Bestek beste, finalerdiak auzoko jaietan



Jubiletak taldea futbitoko finalerdian.

jokatu zituzten eta jendetza batu zen harmailetan.

Futbito finalak

Futbito txapelketari dagokionez, berriz, uztailaren 24an, astelehena jokatu dituzte finalak, 17:45ean zein 19:30ean, Ligako finalak izango dira batetik eta bestetik, Kopakoa. Hain justu, Ligan, finala jokatu dute Jubiletak Aribiransa taldearen kontra. Kopan, berriz, finala jokatu dute Kastakuak Goenetzetxo taldearen kontra.

11 ekipo

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, ikusle asko izan da partidak ikusten. "Jende asko izan da harmailetan, jendea joaten da ikustera. Gauean tokatu zen behin eta orduan ere jendea egon zen. Gure asmoa zen finalak kanpoko frontoian egitea, baina frontoia, berez, txikiagoa da eta horrez gain, jaietako astelehenerako karpa muntatuta egon behar da, beraz, han ezin da egin. Pena da, jendeari ez zaio kostatzen kiroldegira joatea eta jende asko egon da baina uste dugu goian eta kalean eginez gero, jende gehiago etorriko litzatekeela.

Aurten 11 taldek parte hartu dute futbito txapelketan -iaz 12-. Hiru talde ezik, gainerakoak herrikoak izan dira. Kanpoko taldeak, berriz, Eibarko, Arrasateko eta Sorluzeko jendearekin osatu dira.


17 BIKOTE LEHIATU DIRA PILOTA TXAPELKETAN ETA 11 EKIPO, BERRIZ, FUTBITO TXAPELKETAN

Jendetsu

TESTUA ETA ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO ETA ARKAITZ ARANA.

Herritarrek estimatzen dituzte San Andresko jaiak eta aurten ere baieztatu da hori. Zapatu eguerdian, lagun arteko giroan, Regina eta Txaro Maiztegik irabazi zuten lehen tortilla lehiaketa, eta arratsaldean, jendetza batu zen pilotako finalurrekoak eta zezenen inguruko espektakulua ikustera. Gauean, jende asko afaltzen eta erromerian, batez ere, gazteak. Domeka lasaiago joan zen baina eguerdian eta arratsaldean harmailak bete ziren pilota partidak eta izetatarren herri kirol erakustaldia ikusteko. Bola premioan ere hirurogeitik gora bolari eta sariak nagusiak Txiki eta Aimarrendako. Astelehenean, gazteak bixamunarekin eta helduenak dantzarako gogoz. Betiko legez...

Zozketan saritutako zenbakiak: 2167 eta 1965. Lehen sariduna agertu da, bigarrenarena oraindik ez.





GUTUNAK

Xabier Labaien gogoan

IBAN ARANZABAL

ETXEBARRI BLOGA

Saiatu sarean arrastoa topatzen eta ez duzu irudirik lortuko, edo oso-oso ezkutuan, akaso. Normala da; Xabi, ez zen lehen lerroan ibili zale. Ez zen argazkien lagun, bai fokuena, ordea; izan ere, fokuak ere norbaitek jartzen baititu artistek distira egin dezaten. Antzerkian erabiltzen zituen pare bat fokuek ze argi ikusgarri ematen zuten! Isilik, trabarik egin barik, atzeko lanean, baina beti fin, zintzo eta inurri legetxe. Pertsona on bat galdu du artisteok, artisten lagun zen soinu teknikari apal eta on bat. Lagun bat galdu dugu Bergara-Soraluze-Elgeta ingurumariakook. Gutzirekin asko egiten zekien musikazalea

izan da niretzat beti Labaien. (...)

1996ko hasierak izango ziren Moraurekin egin zela Gaztelupeko Hotsak zigiluaren sorrera. Ordukoan ere bueltan-bueltan zen Labaien. Nik ezagutu nuen geroxeago. Deabruakeko Imanol, Joni eta Haritzekin batera. “Dana lanbrotute ikustot” emankizunak utzi ninduen pla! Begiak zabal-zabalik. Aranbarri, Izagirre, Otamendi... (...) Handik gaurdaino harreman dezentea izan dut Liskerreko teklatu jotzaile eta kantari zenarekin. Ahotsarekin jokoak egitea oso zuen gustuko mikroa pizteaz bat. Bazetorren aspaldiko Seska taldean jotzetik, edo gerora Euskal Herriko mugetatik kanpo jardun zuen Mikel Herzog bergararrarekin aritzetik. Nik “Dana lanbrotute ikustot”-en

ezagutu eta egin nuen lagun. Zer zen emanaldi hura! Ze tipo apal eta gertukoa ezagutu nuen han!

Gerora Mikel Urdangarinekin batera dezentetan, Moraurekin berarekin, Pettirekin, Tapiarekin... Eta Gaztelupe tabernatik pasatu diren artista pila galantarekin gogoratzen dut. Soinu mahaiaren atzean. Xarrarekin eta Ubanerekin eskuz esku. (...) Ez da erraza izango ahazten. Seguru nago apal-apal jardungo duela dagoen tokian dagoela musika ikasgaiak ematen: “ez du egin behar “ro-ro” ezta “fi-fi” edo “pfi-pfi” ere, “tz” horiek ez dute luzeak izan behar gure belarrietarako. Ahotsa entzun behar da garbi. Garbi baina ez altuegi. Garbi eta ulertzeko moduan. Apala eta gure musikazaletasuneko irakasle bat. Eskerrik asko, Txabi!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Zertan aldatu dira jaiak azken urteotan?

Jaien garapenari buruz galdetu diegu urtetan jaiak antolatzen edo parte hartzen ibili diren bost laguni



JOSE GIL

"Jendeak gehiago parte hartzen zuen; gauza pilo egiten ziren lehen. Orain zaila da boluntarioak lortzea antolaketarako, jendeak ez du lanik hartzerik nahi. Udalak laguntzen zuen, baina, batez ere jendeak antolatutako gauzak egiten ziren. Dena den, jaiak ondo daudela uste dut".



CRENCIANO HERNANDEZ

"Lehen dibertigarriagoak ziren, laguntza gehiago zegoen, Nafarroako-Aragoiko jotak ekartzen zituzten, arrantza lehiaketa zegoen, abuztuan, adibidez, txokolatea ematen zuten... Zezen gehiago izaten zen. Ni gaztea nintzen eta zezenean parte hartzen nuen".



ITZIAR ETA URRATEGI GANTXEGI

"Lan mordo egiten genuen tabernan (Atxolin); 07:00etan ixten genuen eta 09:00etarako zabaldu. Akaso, danborradarekin eta 05:00etako zezenarekin jendeak gehiago eusten zion gauean. Lizarrako gaiteroak etortzen ziren, Zabale anaiak soinua jotzen... oso giro polita izaten zen".



ANDONI CALLES

"Lehen gauza gehiago egoten ziren, saltsa gehiago, herrikoiagoak ziren, jendeak gehiago parte hartzen zuelako. Ikuskizun herrikoiak... Buruhandiak, adibidez, egunero egoten ziren. Hori guretzat mundiala zen, Ezozibideraino joaten ziren buruhandiak".

PUNTUA



ALBERTO INURRIETA

Osasuna zer den edo zertan den

Osasuna zer den galdetzen badiogu edonori jasoko dugun erantzuna gaixotasunik ez izatea izango da. Osasunari buruz aritzea gaixotasuna lehen planora ekartzea izango da. Ez dugu ezagutzen osasunaren definiziorik gaixotasunari lehentasuna ematen ez dionik.

Hori dela eta ahalegindu naiz osasuna begiratzeko beste ikuspegi batzuk eta osasun psikologikoaren definizio hau aurkitu dut.

Osasun psikologikoa harmonian bizi izateko trebetasuna da, bai naturarekin, bai norbere buruarekin; unibertsoarekin duzun harremana ulertu; tolerantzia eta errukia azaldu lagun hurkoari; penak eta sufrimendua gure gogoa hondatu gabe eraman; biolentziarik eza maitatu; izaki kontziente guztien ongizatea zaindu eta adin handira iristen lagunduko dizun bizitzari esanahia eta asmoa aurkitu, edo heriotzari aurre egin soseguz eta beldurrik gabe.

Osasuna horrela definitzeak argitu egin nau. Hain aberatsa eta mamitsua iritzi zait, euskarara itzuli eta dagoen bezala zutabetxo honetara ekartzea erabaki dudala. Agian begiradak zabaltzeko proposamen bezala edo besterik gabe hausnarketa bide bat.



Bi hamarkadaz, "jaiak herritik herriarendako"

Galtzagorrixak Jai Batzordeak hogeitun urte beteko ditu aurtengo jaietan. Uztailaren 22an, urteurrena ospatzeko herri-bazkaria antolatu dute Kalebarrenen, Pilota Txapelketarekin batera eta 24an jaien hasierako pregoia botako dute udaletxeko balkoitik, egindako lanaren aitortza modura.

Testua: **Egoitz Unamuno.**
Argazkiak: **E.U., Fernan O.,
Ubane M..**

2004an sortu zuten herriko zenbait gaztek Galtzagorrixak Jai Batzordea eta harrezkero, herriko jaietan gazteen parte-hartzea bultzatzea eta euskal kulturari lekua egitea izan ditu helburu. Bi hamarkadaren ostean, Marras errotuta dago jaietako pertsonaia moduan eta harekin batera, baita txosnagunea ere. Txaranga, berriz, jaien ezinbesteko osagai bihurtu da. Ondorengo lerroetan, sorreratik gaur egunera arteko ibilbidearen errepasoahalegina.

Aurrekaria: San Pantaleon

Galtzagorrien aurretik, izan ziren herrian jaietan gazteei lekua egiteko ahaleginak, esaterako, Gaztetxeak musika kontzertuak antolatzen zituen Zentroan edota U esaten zitzaion lekuan. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, osterahainbat gazte koadrilak San Pantaleon eguna antolatu zuten elkarrekin, jaien egun gehigarri modura. Atzetik etorri zen gero, sortu berria zen Pil-pileanek jaietan parte-hartzea indartze aldera antolatu zuen ekimen sorta: bazkaria, sagardo dastaketa, balsa jeitsiera, merengada... 2000an, Pil-pileanek Atxolin taberna zena zabaldu zuen, sos batzuk atera eta euskal giroa ipintzeko. Hurrengo urtean, Euskal Herrian Euskaraz taldearekin batera, Akelarre taberna zabaldu zuten eta haren ostean erabaki zuten bi taldeotako partaideek Segikoeekin batera, tabernak laga eta txosnagunea sortzea, berau kudeatzeko ardura izango zuen jai batzorde eta guzti.

Marras eta Galtzagorrixak txaranga,
2014ko txupinazioan.





2004an, Marrasen lehen bertsioa atera zen txarangarekin.



Txaranga kideak, lehen aldiz, peto gorria jantzita.



"TXARANGA HERRIKO MUSIKARIEN TOPALEKU BIHURTU DA ETA OSASUNTSU DAGO"

DOMENTX UZIN, TXARANGAKO KIDEA

Jaietako pertsonaia, laguntzaileak eta txaranga

Herriko jaietan parte-hartzea eta euskal giroa indartzeko helburuz eratu zuten, beraz, jai batzordea, eta hori lortzeko bere bueltan imajinario majiko oso bat eratu zuten, baita horri lotutako hainbat elementu ere. Lehen, Marras marraskiloa hautatu zen jaietako pertsona modura, alde batetik, genero zehatzik adieraten ez zuelako eta, bestetik, ordurako marraskiloa herrian euskatzaletasunaren eta gizarte mugimenduaren ikur zelako. Bigarrena, galtzagorriak, Marrasen laguntzaile finak (peto gorritz jantzita), iratxoan irudikapena dira. Hirugarrena, Galtzagorri txaranga, Musika Eskolak aurretik sortua zuen txaranga peto gorria jantzi eta izen berria hartu zuen. Gainera, Gorrigain txosnagunea (jaietako gune euskalduna) ere sortu zuten baita Marrasi gorazarre egiteko kantu laburra asmatu ere: 'Marras Galipoteko' izeneko, udaletxearen atzeko kaleari erreferentzia

Galtzagorrien ekarpen nagusienetako batzuk



Marras. Marraskilo erraldoia jaiaren eta alaitasunaren sinbolo bihurtu da herrian. Miel Ibarzabal bergararrak egin zuen 2005ean, enkarguz.



Osintxura. Jaien lehenengo egunean, Marras eta txaranga Osintxura joaten dira jaiak hasi direla iragartzera. Abuztuan eurak etortzen dira.



Bazkaria. Ohitura bihurtu da, jaietako kainoikada bota aurretik, eguerdian, gazteek elkarrekin txosna zabaldu eta elkarrekin bazkaltzea.



2006an, batzordeko zenbait kide txosna barruan.




2014an, gazteen bazkaria txosnagunean.

eginez. Errelatoaren arabera, Marras Galipot kalean bizi da eta jaietan ateratzen da plazentziatarrak alaitzera.

2004an, lehenengo urtean, Gorrigain izeneko txosnagunea Frontoian ezarri zuten negutegi baten egiturarekin osatutako txosna eta guzti, eta handik laster, bi urtera, 2006an, Zubi Nagusira aldatu zuten, herriaren erdigunera. Hura izan zen lehen aldia Zubia festagune bihurtu zena (hilabete batzuk lehenago eraberritu zuen Udalak, espaloiak kenduz eta zoruan adokinak ezarriz). Kokagune horrek are arrakasta handiagoa ekarri zion txosnaguneari.

Finantziazioari dagokionez, Galtzagorrixak jai batzordeak hasieratik eskatu zion dirulaguntza Udalari eta batzordeak ia urtero jaso izan du laguntza. Hain zuzen, laguntza publiko hori eta txosnatik ateratako irabaziak baliatuta ordaindu dira urtero programazioaren gastuak, nagusiki, gonbidatutako kulturgileen dirusariak eta eurentzako jatorduak.



**"JAIK BIZITZKO
BESTE MODU BAT DA,
BARRUTIK ANTOLATZEN
JARDUTEA"**

MIREN GALLASTEGI, GALTZAGORRIA



Kontzertuak. Txosnagunean musika eskaintza askotarikoa eskaintzen da urtero. Herriko talde eta musikari askok ere jo izan dute bertan.



Herriarteko desafioak. Gazte asanbladarekin elkar hartuuta, herriarteko desafio ikusgarriak jokatu izan dira. Oñati eta Elgoibarrekin bana.



Balsa jeitsiera. Garai batean, ohikoa zen jaietan balsa jaitsiera antolatzea, erakustaldi zein karrera formatuan. Ikusmin handia sortu izan dute beti.



2014an ofiatiarrek in jokaturako desafioan.



2019an, musikazale ugari lehen lerroan.



"NAHI DUGUN JAIA SORTZEKO GUNEA DA ETA BELAUNALDIAK BATZEKO AUKERA"

IHINTZA GARATE, GALTZAGORRIA

Eredu partehartzailea

Urteotan denetariko ekimenak antolatu dira txosnagunean: balsa jaitsiera, kantzontzillo eta kulero karrerak, silla jokua, herri-kirol saioak, herriarteko desafioak, ginkanak, triki bertso poteoak, karaokeak, gazteen bazkaria... Eta, batez ere, musika kontzertuak, tarteka herriko taldeak eta beti ere askotariko estiloetakoak: rock, punk, pop, triki, funky, rap...

Hogei urteotan, hainbat belaunalditako gazteek parte hartu dute Galtzagorrien batzordean eta urtez urte, elkarrekin lan egin dute herriko gazteei eta Plazentziatar guztiei jaigune euskalduna, feminista, parte hartzailea eta kulturalki aberatsa eskaintzeko gogoz. Dozenaka gazte, proiektu berean, errespetuan oinarritutako dibertsioa eta gozamina dakarren festa ereduaren alde. Bada zerbait. Zorionak eta urte askotarako Galtzagorrioi!



Jolasak. Zenbait urtetan, gazteen arteko jolas eta ginkana bereziak antolatu izan dira lehen eguneko bazkariaren aurretik.



Triki bertso poteoa. Behin baino gehiagotan antolatu dira poteoak herrian zehar, trikitilari eta bertsolari gazteak lagun hartuta.



Karaokea. Klasiko bat izan da azken egunean karaokea antolatzea. Zenbaitek pasio handiz parte hartu izan du bertan.



PainApple taldea. MAITANE CAMPOS FUNDAZURI

Pop-punka berpiztera

'PainApple', edo 90-2000 hamarkadetan ipar-amerikan gailendu zen pop-punk estiloaren soinua eta izaera gaur egungo eszenara ekartzeko apustu fina.

Debabarrenean sortutako pop-punk taldea da PainApple, Soraluze, Ermua eta Eibarko lagunez osatua: Katarine Berrueta (ahotsa), Asier Cascán eta Andoni Conde (gitarrak), Gorka Martinez de Lagos (baxua) eta Josu Cascán (bateria). Uztailaren 22an joko dute Soraluzen, euren lehen kontzertua herrian.

Noiz sortu zen PainApple?

2019 bukaeran hasi ginen ideia honen bueltan lanean, baina proiektua ofizialki iaz abiatu zen, 2022ko urte hasieran.

Zerk batu zintuzten?

Batetik, oinarritzkoena, guztiak musika munduan murgilduta



Katarine VertigoRock jaialdian. MARCOS RUIZ

egon garena betidanik (bakoitzak bere ibilbide eta esperientzia propioa izan du talde desberdinetan: "Stai Zitto", "We Are Apes Hello!", "JULEN", "Orihen", "Tinta Roja", "Slide"...); eta, bestetik, ipar-amerikar pop-punkaren generoarekiko dugun pasioak, gaztetatik maite dugun estilo hau esploratzeko gogoak eta ezinegonak.

Estilo konkretua duzuen bezala, erreferente konkretuak ere izango dituzue, nahitaez.

Bai, batez ere Kanadako eta Estatu Batuetako 90. eta 00. hamarkadetako generoaren izenik ezagunenak: "Blink-182", "Paramore", "A Day to Remember", "Sum 41", "Descendents"... Baina Euskal Herri eta estatu mailan guretzat erreferente diren taldeak ere badaude: "Ezpalak", "Berri Txarrak", "Yawners"... adibidez.

Demo elebiduna kaleratu duzue, ingelesez eta euskaraz abestuz.

Bai, hautu hori egin dugu.

Euskaraz, gure hizkuntza delako, ez dago besterik.

Ingelesez, alde batetik influentzia musikalek dakarten eraginak horretara garamatzalako naturalki; eta bestetik, kontzienteki, pop-punkaren izaera mantentzearen, nolabait generoaren 'ama-hizkuntza' delako.

Irakurleari esatekorik?

Bai, gure hiru kantuko demo-a plataforma digital guztietan dagoela entzungai (prestatzen ari garen diskoaren aurrerapena dena) eta Soraluzeko jaietako kontzertuan espero ditugula guztiak!



Joanes gitarran, Ruben baterian eta Aitor baxuan. IMANOL G.A.

Azken single-a zuzenean

Uztailaren 24an igoko da Muzak taula gainera eta, estreinakoz, pasa den hilabetean kaleratutako 'Gezur mila' kanta joko dute zuzenean.

Zubi Nagusiko txosnagunean izango da Muzak taldea: Joanes Iñurrieta (Soraluze), Ruben Irigoyen (Elgoibar) eta Aitor Sagarmendi (Mutriku), uztailaren 24an, astelehena.

'Gezur mila' taula gainera

Ekainaren hasieran argitaratu zuten 'Gezur mila' kanta eta, berez, Mutrikuko Xiri Egunean aurkezteko asmoa zuten. Zoritzarrez, eguraldia zela eta, kontzertua bertan behera geratu zen, eta, ondorioz, Soraluzek izango du zuzeneko bertsioa lehenengoz disfrutatzeko pribilegioa.

Power trioak ere, une hori bizitzeko gogoia dauka, kanta berri bat aurkeztean sentsazioa berezia izaten omen da eta: "Beti daukazu zirrara moduko bat, beti da momentu espezial bat".

Su Ta Garrekin abuztuan

Abuztuaren 28an, Elgoibarko jaietan izango dira Su Ta Gar taldearekin batera, eta ilusioz espero dute hitzordua: "Kriston eguna da guretzat, sekulakoa da horrelako talde potente batekin jo ahal izatea".

Ez da Joanesek Su Ta Gar taldearekin batera joko duen lehen aldia izango: 2008an, Revelphone talde plazentziatarrean gitarra-jole zela, Galtzagorriek antolatutako MozoRock lehiaketa irabazi eta eibartar talde mitikoarekin eszenatokia konpartitzea izan zuen sari. "Kuriosoa da, orain, hamabost urte geroago, berriz tokatu zait jotzea, eta, benetan, oso egun berezia da, oso motibatuta gaude, eta nik uste kriston boloa eskainiko dogula".




Markel eta Maite, M&M.

Herriko DJ bikoteak biderkatu dira

Iraultz Arluziaga eta Amaia Amor izan ziren lehenak: "Revolutionary Love" izenpean, mozorrotuta, gaur egungo zein betiko pop kantak nahastuz; Maite Garmendia eta Markel Barrutia, "M&M", hurrenak: musika elektronikoa eta euskal kanta klasikoaren remixak tartekatuz; eta aurren, horiez gain, bi berri izango ditugu: Anton Akizu eta Urko Aizpuru, "Ezoziko Gaiztuak" (ikus 11. orrialdea) eta Elsa Brut eta A. Caine, "Txaberria" (segidan).

Revolutionary Love-ekoek txosnen irekiera girotuko dute uztailaren 21ean, M&M-ek uztailak 22ko zapatu gaua, Txaberriak uztailaren 24ko iluntzea eta Ezoziko Gaiztuak-ek uztailaren 26ko jaien amaierako arratsa.



Iraultz eta Amaia, *Revolutionary Love*.



A. Caine eta Elsa Brut.

Azpikulturen ahotsa, biniloetatik plazara


Elsa Brut eta A. Caine-ek 'Txaberria' proiektu artistiko-kulturalaren alderdi musikala aurkeztuko dute: binilo zaharrei hautsa kendu, berriei plastikoa, eta garai zeharo desberdinetako estiloak nahastuko dituzte.

Rock kontzertuen gaua izango da uztailaren 24koa, astelehena, eta Txaberriako kideak izango dira aurretiko uneak girotzearen arduradun, iluntzeko 20:30etan hasita.

"Txab!"

Laburdura horrek irudikatuta ageri da kamisetetan Elsa Berruetak (Soraluze) eta Asier Acuña (Intxaurren, Donostia) sortutako Txaberria proiektua.

Momentuz artistikoki espresatzea baino haratagoko helbururik ez dutela badiote ere, ekimen honek garai desberdinetako azpikulturen jendarteratzea du muin eta



Txaberria zuzenean.

oinarri. Horretarako, alor oso desberdinak jorratzen dituzte: "Batez ere diseinu grafikoa lantzen dugu, artikuluen argitalpena eta sare sozialetako bestelako edukien sorkuntza, argazkilaritzan ere murgiltzen hasiak gara..." eta, aurtengo jaietan, euren influentzia guztiak batzen dituen musika saioa eskainiko dute, Elsa Brut eta A.Caine gaitzizen artistikoekin.

Askotariko estiloak

Britpop, punk, Oi!, rock klasikoa, elektronika, beat, garage... 60ko hamarkadatik gaur egunera arte, azpikultura desberdinetan marka utzi duten kantak jarriko dituztela iragarri dute; baita korronte horietan erreferentziatzko izan diren pelikuletako abestiak ere, "Guy Ritchie zuzendariaren filmetakoak edo Quadrophenia pelikularen soinu bandakoak, esaterako".

Euskal azpikulturen garrasia present

Txaberriaren binilo bilduma gehien bat doinu britainiarrez osatuta egon arren, euskal rockak ere bere tartetxoa izango duela agindu dute —Zarama, Itoiz eta Tatxers bezalako taldeen kantuekin— eta irakurlea bertaratzera gonbidatu nahi dute: "Legezko biniloak eta abestirik kañeroenak jarriko ditugu... horregatik, jantzi Adidas-ak (edo abarkak) eta animatu bisitatxo bat egitera!"

"JANTZI ADIDAS-AK (EDO ABARKAK) ETA ANIMATU BISITATXO BAT EGITERA!"

Elektronika zuzenean

Aurten, DJen ordez, zuzeneko musika elektronikoak ekarriko dute Gune Musik jaialdira (zapatuan). Arratsaldean hasi eta etenik gabe goizaldera arte luzatuko da jarduna

Aurten, jaietako bi egun musika elektronikoak girotuko ditu. Uztailaren 22an, 16:00etan hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte luzatuko da Gune Musik jaialdia eta, berritasun modura, zuzeneko musika saioa izango da. Uztailaren 25ean, martitzena, berriz, 18:00etan hasiko da tekno jaialdia eta Gune Musik kolektiboko DJak jardungo dute hura girotzen. Biak kiroldegiaren gaineko terrazan egingo dira, sarrera debaldekoa izango da eta segurtasun zaindaria.

"Elegantea izango da"

Zuzeneko saioei dagokionez, Gune Musik kolektiboko sortzaile Mikel Aparicio APAK esandakoaren arabera, aurten formatu horretako eskaintzaren aldeko apustua egin dute "kalitate musikala" balioan jarrita. Jakinarazi duenez, bi artista ekarriko dituzte, "neska japoniar bat eta mutila Cadizekoa. Jaialdia elegantea izango da".

Zuzeneko ikusgarria

Brenda Sayuri eta Pablo Barros Carcøma izango dira bi musikariak eta zapatuko jaialdian, gauean jardungo dute. "Izango da beti ezagutu dugun jam sessiona, baina

pertsona bakar batek eginda eta instrumentuak ere denak elektronikoak izango dira. Zer ekarri erabakitzeke, jende piloak egon ginen begiratzen eta aukeratu genituen iruditu zitzaigulako bi artista horiek zuzeneko bat zelakoa den ikusteko egokienak zirela eta aukeratu genuen bisualki ondoen ikusten zirenak. Ibilbidea ona eta eskarmentua dute", esplikatu du APAK.

Bien artean, izar nagusia Brenda Sayuri da, japoniar jatorria duen artista brasildarra. 9 urterekin hasi zen musikan eta Brasilen zein Espainian egin ditu musika ikasketak. Adituen arabera, progressive house/ techno estiloko musikaria da,



Pablo Barros Carcøma.



Brenda Sayuri.

zuzenekoetako profesionala; etengabe bere ekoizpen "hobetuak" aurkezteagatik nabarmentzen dena, zuzeneko set-a etengabe aldatuz, zinetan berak zuzenean diseinatu eta gauzatutako ahotsen eta tresna digitalen efektuak txertatzen dituen. Horrez gain, zigilu propioa du, L_A_B mainstream musikara zuzendua.

Carcomari dagokionez, hark ere eskarmentu luzea dauka musika elektronikoaren munduan eta berak ere badu bere zigilu propioa: Analog Behaviour.

Kolektibokoan jaialdia

Martitzeneko jaialdiari dagokionez, berriz, kolektiboko artistek girotuko dute Open Air jaialdia: Orlandok, APAK, I+D-k, Txen-ek, RUDAK, Sergiok eta Garik.

**ZAPATUAN, BRENDA
SAYURI MUSIKARI
ENTZUTETSUA IZANGO
DA GUNE MUSIKEN
JAIALDIAN**

"Energia eta zorientasun piloa ematen didate plazek"

OIHAN VEGA MUSIKARIA, DJ-A

Bosgarren urtez, Plaza Zaharra dantzan jarriko du Oihan Vegak bere diskofestarekin. Uztailaren 22an, zapatuan, da hitzordua, 23:00etan.



Oihan Vega Plaza Zaharrean, iaz.

Gertutik ezagutzen du Soraluze Oihan Vega angiozartarrak. Etorri den guztietan bete-beteta egon da plaza, dantzan zoratzen.

Zuretzat zer da Soraluzera etortzea?

Etxean egotea da, arrazoi askorengatik. Soraluzen lan egiten egon nintzen urte batzuk musika eskolan; horrekin ere badu lotura. Etxea kontsideratzen dut bertako idiosinkrasia kontrolatzen dudalako. Eta etxea da Bergara erdia edo ia osoa doalako hango jaietara.

700 emanaldi baino gehiago plazarik plaza; zer ematen dizute plazek?

Energia eta zorientasun piloa. Oso polita da egiten dudana, bizpahiru ordu irauten duten saioetan, jendea zorientatu ikustea, milaka pertsona dantzan. Denok ditugu mobidak, arazoak, baina bizpahiru ordu horietan dena desagertzen da. Oso inportantea da deskonexio hori izatea bizitzan eta oso polita da ikustea zorientasun hori lortzen dela. Jendeak hori islatzen dit niri, argazkietan ikusten da, aurpegi bakoitza dago ondo pasatzen, eta, horrekin ez naiz aspertzten.

Gainera, urtero kantu berriak sartzen doaz, kantuak aldatzen.

Zein da sekretua beti plazak betetzeko?

Ez dago sekreturik; niri esperientziak ematen dit gradua, urte asko daramat honetan. DJ baten lanik zailena da asmatzea da zer jarri zein momentutan eta hori da nik dudana dohainik indarsuena. Plazarik plaza gauzak asko aldatzen dira. Euskal Herrian, euskalkiekin gertatzen den moduan, 5 kilometrotan dena aldatzen da. Astigarragan, adibidez, Barakaldon baino euskal kanta gehiago jartzen ditut. Joan behar dut egokitzen errepertorioa tokian tokiko ezaugarrietara eta ohituretara. Eta, ikusten dudanaren arabera ere jartzen dut musika, momentuan inprobisatzen, dagoen giroaren arabera. Publikoaren animora egokitu behar naiz. Jendea dantzarazten duten DJak ez gara asko. DJ batek ez badu jendea dantzan jartzen ez da DJ ona. DJaren eginkizun nagusia da asmatzea zer jarri, noiz eta non.

Zein koreografia entseatzeko esango diegu soraluzetarrei?

Orain plazetan dagoen goi mailako Bizarrapen 56. sesioa, eta, euskal doinuetan, Malakias eta Gozategiren *PorruPatataren* bertso elektronikoa. ETS ere bai, haien edozein kanta. ETS da Euskal Herriko erreferenterik handiena gazteei dagokionez. **Iaz, besteak beste, Euskaraz Bizi Nahi dut bandera atera zenuen taula gainera. Aldarrikatzailea ere bazara?** Aldarrikatzailea ez. Politikan sartzea ez dut gustuko. Baina euskal kultura, euskara bultzatzea bai. Bandera pirata ere ateratzen dut, transgresio puntu hori ere aldarrikatzen dut, albokoa molestetzen ez duzun bitartean egin ezazu nahi duzuna. Muga bakarra da albokoa molestaztea.

"DJ ON BATEN EGINKIZUN NAGUSIA DA ASMATZEA ZER JARRI, NOIZ ETA NON"



Gozategiren kontzertua, jendez lepo. JOSETXO PEREZ

"Flipatzen gaude gure kantek duten harrerarekin"

ASIER GOZATEGI MUSIKARIA, TRIKITILARIA

Martitzenean, uztailaren 25ean, kontzertua eskainiko du Gozategi talde ezagunak, 23:00etan, Plaza Zaharrean.

Iaz, 30 urte bete zituen Gozategi taldeak. Urteurren ospatzeko birari esker, gazteek talde berri bat "deskubritu" dute.

Beraz, gazteek ondo hartu zintuzte izazko biran?

Bai; bereziena hori izan zen. Kontzertuetan lehenago gaztea zen jendea izaten genuen, baina orain konturatu gara gazteek deskubritu dutela talde berri bat, Gozategi, eta, flipatzen gaude zelako harrera izaten ari den gure erreperitorioa.

Erreperitorio hori izango da Soraluzen?

Bai. Desberdina izango da, baina iazko erreperitorioatik asko izango du. Gauzak ondo doazenean ez dira aldatu behar... Ilusioz gaude Soraluzera joateko.

Gozategirendako zergatik dira plazak horren garrantzitsuak?

Gu plazatik sartu ginelako eta umetako kulturak-eta plazan bermatzen dira, herria plazaren inguruan biltzen da; horretaz gaude harro. Generazio desberdinak batzen dira,

pentasaera desberdineko jendea, baina denak euskal giro jator baten. Denak kalejiran ibiltzeak euskal nortasuna ematen dio gauri, euskal giroa. Gauza bat da kontzertu batera joan eta talde batekin gustura egotea eta beste bat da kalejiretan ibiltzea, aurreko filetan gaztetxeoak, atzerago gazteak, gero helduak eta atzean aiton-amonak; hori ikustea kristolakoa da.

Egunkariaren itxiera, Batasunaren ilegalizazioa, etorkinak... gai ugari landu izan dituzue; orain kantu bat eginez gero, zeri buruzkoa litzateke?

Politikoki edo sozialki beldur nagusia da ultraeskuina hartzen ari den indarra. Ez dut ulerzen nola egon daitekeen halako jendea. Era atsegina batean hori salatzea ez legoke gaizki.

1992tik hona zortzi disko, azkena 2018an. Gozategiren zaleek disko gehiago espero dezakete ala orain plazak izango dira zuen erreinu?

Orain disko bat atera beharko bagenu baditugu abestiak, baina ez dugu beharrik ikusten. Plazek eskatzen digutenari erantzuten nahikoa lan daukagu. Bakoitzak bere lanbidea du...

Soraluzen zeintzuk izango zarete taula gainean?

Asier Gozategi, Iñigo eta Imanol Goikoetxea Urdaingoak, baterian, Mattin Arbelaitz lesakarra eta tronpetarekin bi oriotar Asier Sarasola eta Iñigo Perona. Taula gainean sei gara gehi teknikaria Asier Erzilla Igorrekoa eta Aitor Altzibar laguntzaileak, Bilbokoak.

"DENAK KALEJIRAN IBILTZEAK EUSKAL NORTASUNA EMATEN DIO GAUARI, EUSKAL GIRO JATORRA"

Sukalde
tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan
menu berezia
Karta
Burduntzian
erretako bildotsa
Etxeko trikoak
Soufflea

Armendi
Jatetxea



Tel.: 943 75 10 02



IZZGUIRRE
Igeltzeritza

Eraikin berriak • Kalitateko emaitza
Erreformak • Era gutxielako igeltsaritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913



Kontulan

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

www.kontulan.com



FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) • 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

MGS
Seguros

Veronica Galarraza
Gertuko eta segunua



Astelehenerdik ostiralera: Santa Ana 13
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30 ☎ 665 744 055

MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosariak



Astelehenerdik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99

MABEL
ILBAPAINDEGIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma



Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89

BOLIA
TAXERIA



Prokok, ardiak, kontribuzak
Gazte-giroko festa

OTILLA HARATEGIA

- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko garadua
- Etxeko tripak, bistakoa, salbata eta mingaina



Etubebereta 3
Telefonoa: 943 75 23 75

Hortz klinika

Errabal 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.501

Katia Gustinio
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

30 urte baino gehiagoko esperientzia odontologia, protesiak, ortodontzia, kolorepediatria, ingurumenak, estetika...
Zerbitzu radiologiko onakorra (3D):
ekuanerria, ortu eta tele.



SORALUZE
MOTOR

Mendiola ind. 13
Soraluze

676 554 817 - 943 75 21 38



Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgesak,
ogitariekak,
radiak,
piztak,
gosaria...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 08



ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

eruntza dekoratiboko industriala



Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Griado
Fruitategia Untaitegia

- Enkarguak Whatsapppe
- Etxerako zerbitzua
- Berriak & delicatessen

Astelehenerdik ostiralera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatak: 09:00-13:00

☑ 629 918 536



Atamar
ILBAPAINDEGIA

Ilbapaindegia
Estetika
Solariuma



Gabildeg 4, Arbaiz
Tel.: 943 75 13 11 - 662 51 14 94

Bidelagun euskaltzaletasunean



ZORION AGURRAK



Irati Calles Agirre
Uztailaren 23an, 12 urte. Zorionak Irati!!!



Aiora Sodupe Agirre
Uztailaren 15ean, 7 urte. Zorionak Aiora!!!



Itziar Agirre Arrizabalaga
Abuztuaren 15ean, 50 urte. Zorionak Itzi!!!



Maren Agirre Aizpitarte
Abuztuaren 14an, 12 urte. Zorionak Maren!!!



Aina eta Lea Oregi
Uztailaren 12an, 3 urte. Aspergura guztiak kendu dizkiguzue eta bihotza bizi-ilusioz bete! Zorionak eta urte askotarako!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitarakoak; bi bide dituzu:

Internet

Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@pilplean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Julio Devesa Coello
Esther Azkarate Maiztegi

Jaiotakoak

Ager Ranero Gonzalez

ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, punta-puntako teknologekin lan egiten dugu. Cad-Cam sistema berria erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behe
SORALUZE
Tel: 943 75 25 67
Mug: 747 42 78 19
e-mail: elizpe3@gmail.com

Orduetgia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

ORDEZKO TERAPIEN ZENTROA

ARITZ LASKURAIN
OSTEOPATIA

Santa Ana Kalea 22B
627 39 72 69

Nutrizio-zerbitzua
- aurretiko hitzordua -
661 904 079

NEREA SEGURA
DIETISTA - NUTRIZIONISTA

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euskadiko Finika Administrazioaleen Lurralde Batzarra

ROSA M^a PINTADO

Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna
Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Eraikin bateko lokal baten jabea naiz. Orain arte saltoki gisa alokatuta neukan, eta orain, taberna izateko alokatuko dut. Errentari berriak telebistako antenarako sarbidea behar du, eraikin osorako orokorra dena. Nire lokalak antenarako sarbiderik ez duela konturatu naiz, orain arte ez baita horren beharrik izan. Komunitateko presidenteari eskatu diot zerbitzu hori, eta ukatu egin dit. Jakin nahi nuke ea telebista antenarako sarbidea izan dezakedan.

Telebista antena eraikinaren elementu komuna da, instalazio komuna. Horrek ez du ziurtatzen, estatutuetan besterik aurrekusi ezean, lokalek antenak ematen duen seinalez baliatzeko behar den instalazioa izatea. Egoera hori sarri gertatzen da merkataritza lokaletan.

GOMENDIOA: Zuk planteatzen duzun eskaera eraikinaren elementu komunetako batez baliatzeko duzun eskubidea baliatzea da. Erkidegoak eskubide horri erantzuteko betebeharra du, eta inork ezin dizu eskubide hori kendu. Beraz, hori egiteari uko egitea bidegabekoa ez izateaz gain, legez kanpoko ere bada.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

LASTER ARTE

Xabier Labaien Bergara

Uztailaren 11n hil haiz, 59 urterekin.

“Noon haaagoooo? zein larretan...
E! E! E! O! O! O! Entzuten da? Bai!
Bai! Bai! Ez! Ez! Ez!”. Bat-batean, hire
ahotsa isildu egin duk eta hutsune
handi bat sentitu diagu denok. Eskerrik
asko eman diguan laguntza, maitasun
eta bizipoz guztiagatik, Txabi! Topa
hiregatik eta bizitzagatik! Biba hi!

Gaztelupeko Hotsak, Pil-pilean, Kukumixo,
Xero Xiette, Sorraluzeko Musika Eskola, Urrats
Dantza Taldea, eta Sorraluzeko Udala.



**EIBARKO HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA**



**ESCUELA
OFICIAL
DE IDIOMAS
DE EIBAR**

DEUTSCH-ENGLISH-EUSKARA-FRANÇAIS

Ikastaro ERDIPRESENTZIALAK
hizkuntza guztietan:
Egun bat eskolan + lan
pertsonala Moodle
plataforman

ARRASATEN eta AZKOITIAN
gela desplazatuak

IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36 €

Agiri ofiziala
eskura ezazu!

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA



Matrikula:
Irailaren 1etik 18ra

On-line
IKASGUNEA
plataformaren bitartez



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas



Otaola hiribidea 29
eoeibarheo@gmail.com
943 89 92 75

@eoeibarheo



www.eoeibarheo.hezkuntza.net



bertako
igogailuak | ascensores

HARRO!
www.bertako.eus

**BERTSO
JAIALDIA**
Uztailaren 23an
18:30ean frontoiko karpan

*Sustrai
Colina*

*Maialen
Lujanbio*

*Oihana
Iguaran*

*Onintza
Enbeita*

*Guzjartzpilea:
Maite Berriozabal*



ANTOLATZAILEA: bertSora / LAGUNTZAILEA: Soraluzeko Udala

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LALUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIDENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42